

GIL 119 Aitzandi lurmuturreko tolestura



Aitzandi lurmuturreko toles etzana.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 18' 6.98" N

Long.: 2° 20' 41,56" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 553.135,78 m

Y: 4.794.553,68 m




Nola iritsi

Atera Debatik N-634 errepidetik, Itziarrerantz. Aparkatu autoa begiratokian, eta jaitsi marearteko zabalgunera seinalerik gabeko bidexka batetik. Beharrezkoa da itsasbehera izatea.



Egitura osoaren ikuspegi orokorra. Faila alderantzikatuaren eta Aitzandiko tolesaren arteko erlazioa ikus daiteke.



Aitzandi lurmuturreko failaren eta tolesen interpretazio-eskema.

Deskribapena

Aitzandi lurmuturrak —Behe Kretazeoko flysch beltzak osatua— arro guztiko toles etzannen adibide onenetako bat du. Tamaina dekametrikoko toles bat da; txanga nahiko estua du, eta alpeak oso zuzenak. Ardatz-planoa ia horizontala da.

Badirudi 100 metrora —hegoalderantz— dagoen faila batekin erlazionatuta dagoela tolestura, eta gerora egungo posizio horizontaleraino kulunkatu den narras-toles gisa interpreta liteke.

Behatzeko lekurik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 23, GIL 25, GIL 27, GIL 28, GIL 43, GIL 45, GIL 48, GIL 101, GIL 102, GIL 103, GIL 119, GIL 135, GIL 63, GIL 60.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 45, GIL 117, GIL 118, GIL 120, GIL 121, GIL 122, GIL 126.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Hilario, A. (2012): *El biotopo del Flysch*. GFA. Donostia.